



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko ekainaren 17a

76. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, udalen jabetzako 0-3 urteko haur hezkuntzako zentrozen finantzaketa arautzekoa. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atxiki dakion emakumeen kontrazepzioaren, abortu seguru eta legezkoaren eta hezkuntza afektibo-sexualaren eskuragarritasun unibertsalaren aldeko nazioarteko mobilizaziorako kanpainari. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da C hepatitisaren aurkako sofobubir tratamendua errukizko erabilera gisa aplika dezan, Sendagaietarako Europako Agentziak eta Sendagaietarako Espainiako Agentziak baimendutako kasuetan. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2014-2015 ikasturterako plantillak egiterakoan kontuan har dezan Pitillasko ikastetxe publikoan hiru talde behar direla, zerbitzuaren kalitatea eta ikasleentzako arreta egokia bermatze aldera. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (7. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako 2014-2020 Osasun Plana (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, udalen jabetzako 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroyen finantzaketa arautzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dioen legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute udalen jabetzako 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroyen finantzaketa arautzeko Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarrekoprozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea udalen jabetzako 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroyen finantzaketa arautzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea bukatuko dela heldu den astelehenean, ekainaren 23an, 9:30ean.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru lege proposamena, udalen jabetzako 0-3 urteko haur hezkuntzako zentroyen finantzaketa arautzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuak zambiluka ibiltzera derrigortzen ditu udalak, bere diru-laguntza finalisten menpeko zerbitzuen finantzaketari dagokionez; horrenbestez, toki administrazioek finantzaketarik ezagatik zerbitzu horietako asko kentzeko arrisku larria dago gaur egun.

Tokiko eskumenen banaketaren arloan izan diren estatu mailako legedi aldaketek –batez ere Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legea onetsi zenetik– Nafarroako eskumenak finkatzen eta banatzen lagundu beharrean, beraiekin ekarri dute aipatutako legean xedapen bat sartu behar izatea, Toki Administrazioaren arloan Nafarroak daukan auto-gobernu ahalmena errespetatze aldera.

Hala eta guztiz ere, Nafarroan oraindik ere Nafarroako Gobernuaren berezko eskumen asko badaude, udalek beren gain hartuak eta bi administrazioek elkarrekin finantzatuak, halako definizio gabetasuneko egoera batean jarraitzen dutenak, zeren eta haien gauzatzea eta finantzaketa ez baitira behar bezala eta gaurkotasunez erregulatu. Horien artean dago, agerikoa den bezala, 0-3 urteko haur hezkuntzari dagokiona.

Zalantzazko egoera hori behin-behinekoz erregulatzeko, etengabe arazoak sortzen baitizkie ardura duten udalei, eta Nafarroak toki entitateei eskuordetutako eskumenen finantzaketa finkatzeko behin betiko legedi berria lortzen ez duen bitartean, beharrezkoa da haur hezkuntzako 0-3 urteko zikloa finantzatzeko gutxieneko legedi bat onartzea.

1. artikulua. Nafarroako Gobernuak bere gain hartu beharko du finantzaketaren % 100, Udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeari buruzko

Hezkuntza kontseilariaren 27ko 79/2012 Foru Aginduko oinarrietan ezarritakoaren arabera.

2. artikulua. Nafarroako Gobernuak aurreko artikuluan ezarritako finantzaketa ekitaldi ekonomiko bakoitzaren barrenean ordainduko du.

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako Gobernuari foru lege honetan aurreikusitakoa garatzeko agindua ematen zaio.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharramunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atxiki dakion emakumeen kontrazepzioaren, abortu seguru eta legezkoaren eta hezkuntza afektibo-sexualaren eskuragarritasun unibertsalaren aldeko nazioarteko mobilizaziorako kanpainari.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita atxiki dakion emakumeen kontrazepzioaren, abortu seguru eta legezkoaren eta hezkuntza afektibo-sexualaren eskuragarritasun unibertsalaren aldeko nazioarteko mobilizaziorako kanpainari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Espainiako estatuan, nabarmen garatu ziren genero-berdintasuna sustatzera bideratutako politikak eta ekintzak, eta horrek inpaktu oso positiboa izan du emakumeen bizitzan. Halere, atzerapauso handiak eta eraso larri bat ematen ari da emakumeen eskubideei dagokienez; bereziki, haien osasuna sustatzeari eta haien sexu- eta ugalketa-eskubideei dagokienez. Gizarteko zenbait sektore

politiko eta erlijioso saiatzen ari dira edukiz murrizten eta husten emakumeek beren amatasunaren gainean erabakitzeko duten eskubideari buruzko eta segurtasunez abortatzeko eskubideari buruzko legeak. Argi dago arlo horretan emakumeen eskubideen eta askatasunen esparruko atzerapausoak gertatzen ari direla Espainiako estatuan eta munduko toki gehienetan. Bestalde, gutxitzen jarraitzen du Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak beste herrialde batzuekin garapenerako laguntza ofizialaren arloan duten konpromisoak.

Garapen-bidean diren herrialde gehienetan, emakumeen egoera ezer gutxi hobetu da haien sexu- nahiz ugalketa-eskubideei dagokienez. 1994an, Populazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Kairoko Konferentzian, 179 herrialdek konpromisoa hartu zuten, emakume guztiei familia-plangintzako zerbitzuetarako sarbidea eta haurdunaldia etetean laguntza jasotzea bermatzekoa. Harrezkero, oso aurrerabide txikia egin da. Errealitatea da 20 urte geroago, garapen-bidean diren herrialdeetan, bere haurdunaldia eten nahi duen lau emakumetik batek baino gehiagok ez daukala kontrazepzio-metodo seguru eta doako bat baliatzeko modurik, eta izugarri igo da baldintza txarretan egindako abortu klandestinoen proportzioa. 50.000 emakume hiltzen dira urtero, abortu klandestinoen ondorioz.

Testuinguru horretan, heldu den irailean, emakumeen eskubideak eztabaidagai izanen dira Nazio Batzuen bilkura berezi batean. Jokoan daude emakumeek beren gorputzaz erabakitzeko eskubidea eta seme-alabak eduki ala ez libreki erabakitzeko eskubidea.

Médicos del Mundo erakundeak nazioarteko mobilizaziorako kanpaina abiarazi du emakumeen

kontrazepzioaren, abortu seguru eta legezkoaren eta hezkuntza afektibo-sexualaren eskuragarritasun unibertsalaren alde .

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du, bat egin dezan Médicos del Mundo erakundeak mundu guztian –eta bereziki, Nafarroan– emakumeen kontrazepzioaren, abortu seguru eta legezkoaren eta hezkuntza afektibo-sexualaren eskuragarritasun unibertsalaren alde abiarazitako kanpainarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren premiatzen ditu, beharrezkoak diren lege-arau guztiak taxutu eta gara ditzaten, lortze aldera abortuaren despenalizazioa eta osasun-laguntza osoa eskuratu ahal izatea haurdunaldiaren borondatezko etendura kasuetan edo arriskuko abortuekin lotutako kasuetan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren premiatzen ditu, ahal duten neurrian esku har dezaten nazioko nahiz nazioarteko erakundeetan, mundu guztian lortze aldera abortuaren despenalizazioa eta osasun-laguntza osoa eskuratu ahal izatea haurdunaldiaren borondatezko etendura kasuetan edo arriskuko abortuekin lotutako kasuetan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren premiatzen ditu, erabakitaz esku har dezaten, mundu guztian –eta bereziki, Nafarroan– lortze aldera emakumeentzat eta beren seme-alabentzat kalitatezko osasun-zerbitzuen eskuragarritasun unibertsala.

Iruñean, 2014ko ekainaren 12an

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba Bikendi Barea Aiestaran, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da C hepatitisaren aurkako sofosbuvir tratamendua errukizko erabilera gisa aplikatzea, Sendagaietarako Europako Agentziak eta Sendagaietarako Espainiako Agentziak baimendutako kasuetan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren premiatzen baita C hepatitisaren aurkako sofosbuvir tratamendua errukizko erabilera gisa aplikatzea, Sendagaietarako Europako Agentziak eta Sendagaietarako Espainiako Agentziak baimendutako kasuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, urgentziazko izapidea baliatuz Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko: Zioen azalpena

Esan daiteke C hepatitis delako epidemia nagusia Nafarroan; izan ere, datu ofizialik ezean, 6.000 eta 8.000 pertsona bitarte egon litezke birus horrek infektatuta.

2011ra arte, zenbait tratamendu aplikatu dira, zeinen artean nabarmentzen baita terapia hirukoitza. Hori da gaur egun egiten dena, eta horri esker asko igo da sendatze-tasa.

Pertsona asko sendatu dira tratamendu horri esker, baina badu eragozpen handi bat: bere alboondorioak oso agresiboak dira, hainbestearino non soilik Nafarroan hiru hildako egon dira horren eraginez. Eta ez da terapia merkea, tratamendu bakoitzak 30.000 euroko kostua baitauka, gutxi

gorabehera. Gainera, eraginkortasuna ez da espero zena, tratatutako pertsonen erdiak sendatzen baitira, gutxi gorabehera.

2013aren amaiera aldean, AEBetan medikamentu berri bat onetsi zuten. Sofosbuvir du izena, eta entseguetan izan dituen emaitzak ikusgarriak izan dira, kasuen % 90 sendatzeraino, albo-ondorio oso gutxirekin. 2014aren hasieran, Medikamentuen Europako Agentziak errukizko erabilerarako onetsi zuen medikamentu hori, eta handik gutxira Medikamentuen Espainiako Agentzia izan zen errukizko erabilerarako baimendu zuena, hiru kasu jakinetan: zirrosia duten pertsonak, desoreka-arriskua badute edo 12 hilabetean hiltzeko arriskuan badaude; transplanterako itxarote-zerrendan dauden pertsonak, transplantera birusik gabe hiltzeko eta, hartara, mentu berria ez kutsatzeko, eta transplantatutako pertsonak, desoreka-arriskua badute edo 12 hilabetean hiltzeko arriskuan badaude.

Medikamentu horren prezioa, ordea, gehiegizkoa da. Gileak laborategiak –patentea berarena da– 50.000 edo 60.000 euroan saltzen ditu 12 asterako sofosbuvir-dosiak. Osasun Ministerioaren eta laborategiaren artean prezioa negoziatzeko saiakerak egin dira, baina ez da inolako akordiorik lortu. Gauzak horrela, autonomia erkidegoetako sailek erabaki omen dute sofosbuvir-tratamendua ez aplikatzea.

Egoera dramatikoa da; izan ere, ia pertsona horiek guztiak sendatzea bermatuko lukeen medikamentu bat dago, baina garestiegia da. Laborategiaren zikoizkeria eta osasun-administrazioaren utzikeria direla-eta, muzin egiten ari zaie gaixoa sendatzeko betebeharrari eta osasunerako eskubi-dea bermatzeari.

Nafarroan oso kasu gutxitan aplikatu beharko litzateke errukizko erabilera. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez ditu datu ofizialak eman, baina gaur egun 6 kasu daude Nafarroako Unibertsitate-klinikan; hortaz, pentsa liteke kasuak, guztira, dozena bat inguru izanen liratekeela.

Beraz, egin beharreko inbertsioa ez litzateke gehiegizkoa izanen; are gehiago kontuan hartzen bada gaixo horiek, sendatu ezean, bestelako zainketak eta are transplanteak beharko dituztela epe luzean, eta horien kostuari osasun-sistema publikoak egin beharko diola aurre. Hori dela-eta, sendatzeko inbertsioa merkeagoa da, baita kostuaren eta eraginkortasunaren ikuspegitik ere, etorkizunean gehiago eta luzaroago inbertitzeko aurreztea baino.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du C hepatitiserako errukizko erabilerarako aplikatu dezan sofosbuvir izeneko medikamentua, Medikamentuen Europako Agentziak eta Medikamentuen Espainiako Agentziak baimendutako hiru kasuetan: zirrosia duten pertsonak, desoreka-arriskua badute edo 12 hilabetean hiltzeko arriskuan badaude; transplanterako itxarote-zerrendan dauden pertsonak, transplantera birusik gabe hiltzeko eta, hartara, mentu berria ez kutsatzeko, eta transplantatutako pertsonak, desoreka-arriskua badute edo 12 hilabetean hiltzeko arriskuan badaude.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter dezan ea tratamendua jaso lezaketen pertsonen barruan sar litezkeen zirrosi gaztea duten pertsonak; izan ere, horien gaixotasuna senda liteke, eta etorkizunean transplantea egin beharra ekidin.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki du akordio hau Osasun Ministerioari eta Medikamentuen Espainiako Agentziari igortzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 12an

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba, Bakartxo Ruiz Jaso, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2014-2015 ikasturterako plantillak egiterakoan kontuan har dezan Pitillasko ikastetxe publikoan hiru talde behar direla, zerbitzuaren kalitatea eta ikasleentzako arreta egokia bermatze aldera.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2014-2015 ikasturterako plantillak egiterakoan kontuan har dezan Pitillasko ikastetxe publikoan hiru talde behar direla, zerbitzuaren kalitatea eta ikasleentzako arreta egokia bermatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nabai parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Iragan maiatzaren 30ean, landa-eremuko eskolei buruzko agerraldi batean, Hezkuntzako kontseilariak berretsi zuen konpromiso sendoa daukala eskola horiek bultzatu eta garatzeko. Kontseilariak nabarmendu zuen departamentuak landa-eremuko eskolak bizirik mantentzeko asmo garbia daukala, prestakuntza bultzatuz, koordinazioa erraztuz, ahal den neurrian laguntzako saioak paratuz eta ikasleentzako arreta erraztuko duen eta hezkuntza zerbitzuaren kalitatea bermatuko

duen ratioa mantenduz. Haur eta Lehen Hezkuntzan ratioak ezartzearena izan zen landa-eremuko eskolak bultzatzeko aipatu zen lehendabiziko neurria.

Ratioei dagokienez, ziklo horietan bizpahiru maila elkartzea planteatu zen. Pitillasko eskolaren kasuan, zehazki, 2014-2015 ikasturtean 3 eta 9 urte bitartekoak elkartzea aurreikusten da, eta guk, gure kezka adierazi genuen batzordean. Gure ustez, irakasleek nekez onar dezakete elkartemota hori, baldin eta irakaslan behar bezala egiten dela bermatu nahi bada. Hezkuntzako kontseilariak arrandiaz dio landa-eremuko eskolak bultzatzen dituela, baina ez du inondik inora ematen horren erakusgarri denik plantillaren aurreikuspenean gela bat desagertzea. Hogei ikasleko 3 talde izatetik 2 izatera igaroko lirateke, zerikusirik ez daukatenak, ez adinari, ez beharrezanezi begira. Gisa horretako ikastetxe batean gela bat gutxiago egoteak ondorioak ditu eskolako eguneroko jarduna egiteko, guardia egin beharra dagoenean ikasleei zuzeneko arreta emateko, aniztasunari erreparatzeko, familiei kasu egiteko nahiz irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko beste hainbat kontutarako.

Hori dela-eta,behean sinatzen duten parlamentu-taldeen honako erabaki proposamen hau aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2014-2015 ikasturterako plantillak egiterakoan kontuan har dezan, landa-eremuko eskolak bultzatzeko erabaki duenez gero, Pitillasko ikastetxe publikoan hiru gela behar direla, zerbitzuaren kalitatea eta ikasleentzako arreta egokia bermatze aldera.

Iruñean, 2014ko ekainaren 12an

Foru parlamentariak: Miren Aranoa Astigarraga eta Nekane Pérez Irazabal

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako 2014-2020 Osasun Plana.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2014ko ekainaren 11ko erabakiaren bidez, Nafarroako 2014-2020 Osasun Plana igorri dio Nafarroako Parlamentuari, iritzia eman dezan.

Hori horrela, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 202. artikuluan xedatutakirekin bat, ERABAKI DA:

1. Nafarroako 2014-2020 Osasun Plana izapidetzeko onartzea.

2. Xedatzea Legebiltzarreko Osasun Batzordea izan dadila plan horri buruzko iritzia emanen duena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

(Oharra: Aipaturiko plana kontsulta daiteke Nafarroako Parlamentuaren web orrian: www.parlamentodenavarra.es/inicio/publicaciones/documentos.aspx)